



bizitza
berria

MAITE
DARCELES

E
i
k
a
r
r
i
r
a
k
u
r
r
i
z

BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MAITE DARCELES

bizitza berria

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

Ama, zer moduz? ... Etxera bueltatuko naiz ... Bai. Hegaldia hartua dut, datorren astearterako ... Bai, nik ere bai ... Ez, ez. Geratzeko Kontatuko dizut, ama. Orain lanpetua nago ...

Amari moztu egin dio Irenek, orain ez baitago hainbeste azalpen emateko. Izango du denbora datorren astetik aurrera, den-dena atalez atal kontatzeko. Geruzaz geruza. Atal zentsuratuak bazter utzita, jakina. Dendara konpainia egitera hurbiltzen zaionean. Edo elkarrekin mandaturen bat egitera joaten badira. Edo bi-bien bakarkako beste edozein egoeratan. Izango du denbora. Eta baita aitarekin hitz egiteko ere. Bakoitzarekin bereiz hartuta hobeto, batera baino. Azalpen mota desberdinak behar baitituzte, eta bakoitzari egokitu behar baitizkio kontakizunaren erritmoa, xehetasunak eta ordena. Aitarekin hobe da bukaeratik hastea, oraingo egoeratik, eta eskatzen dituen azalpenetan sakontzea. Amarekin, berriz, hasieratik heltzea hobe da, urratsez urrats, ipuin bat kontatuko balio bezala.

Eskukoari pantaila ilundu eta beso-euskarrian utzi du Irenek. Bizimodu berri baten atarian dago. Arnasa sakon hartu eta begiak lipar batez itxi ditu.

Azken bost urte luzeetan bizitutako guztia atzean utziko du. Bidaia bateko argazkiak ikusi eta berrikusi ondoren karpeta batean sartzen dituzunean bezala. Edo gairiditutako ikasgai bateko apunteak kartoizko artxibategi batean zokoratzen dituzunean bezala. Sekula berriz ez ikusteko. Horrelako zerbait egingo du azken urteekin.

Lasaitua nabaritzen du. Baina neurritz. Gehiegizko ilusiotan galdu gabe. Batek nahi duena oraindik iritsi ez denean, beti baitago zapuzteko aukera. Sentimendu nahasiak datozkio. Baina aspaldian ezertan egon den baino seguruago dago. Hori da nahi duena. Bidea argi ikusten du.

Lepoa besaulkian bermatuta begiak itxi ditu, gorputza sentitzeko.

Goxotasun epel batek betetzen dizkio barrunbeak, energiako isuri atsegina gorputz guztian barrena barreiatuz. Aspaldian ez zituen bere

barrunbeak horren goxo sentitu. Aurreko asteetan hutsune zuloak hautematen zituen erraietan. Gorputzari arreta ematen zionetan hutsune horietan batetik eta bestetik tenkatze indarrak nabaritzen zituen. *Ez nago ondo*, oihu mutu bat. Egonezin bat. Ondoez isil bat. Gorputzak disfuntzioa agerian utziz bizitza birkodetu beharra erreklamatzeko du. Gure *zelula mordoiloak* arreta eskatzen duenean, txarra. Teilaturik gabeko etxean nola, aterperik gabe sentitzen gara. Hotza, beldurra, gogorik eza.

Gorputza da norberaren etxea.

Eta Irene ohartu da etxea berriz ere teilaturik eta leihoetako kristalik gabe gera ez dakion, energiak zirritu guztietatik itzuri egitea eragotzi ezinik, barrunbeak zeharo soildu, izoztu eta erre arte, bidea alde egitea dela.

Horixe da nahi duena. Erabaki hori hartu duenetik bere gorputza etxea du berriz ere. Gorputza epel sentitzen du. Begiak itxita ditu, arnasa poliki hartzen du.

Mugikorrean doinutxo bat entzun du. Jaramonik egin gabe utziko luke, une atsegin hau ez oztopatzeko, baina Klararen mezua izango ote den esperantza txiki bat dauka. Eta hala da: Klararen mezua da. Azkenean erantzun du. Poztu egin da Irene. Urtebete baino gehiago da elkarren berririk izan ez dutela. Eta beldur zen, edozer arrazoirengatik, Klararekin egoteko aukerarik ez ote zuen edukiko Londres airetik ikusi aurretik.

Besaulkian eserita, hirira iritsi zenekoa gogoratzen hasi da. Hemezortzi urte zituen. Amaia eta biak ingelesa praktikatzera etorri ziren. Poltsikoan diru gutxi, eta egonaldia luzatu ahal izateko lantxoak lortzen zituzten, *Do you need anyone to work here?*: hotel bateko gosariak zerbitzatzeko, greziar baten jatetxean platerak garbitzen, adineko emakume bati mandatuak egiten... Ogia erosteko adina

lortzen zuten. Hainbat lagunek bide erosoagoak zituzten ingelesa ikasteko, gurasoen kontura, baina Irene eta Amaia kasuan etxeko ekonomia ez zegoen horretarako. Bata bestearen babesean, ordea, ederki moldatu ziren uztail eta abuztuan zehar.

Uda bukaera iritsita, Amaia jada etxeratua zen, zereginak baitzituen han. Eta beste laguna, berriz, Klara, hain zuzen, egun gutxira iristekoa zen, Erizaintza ikasketak bertan egitera. Hala, Irenek Londreseko azken egunak Klararekin igaroko zituen.

Egun haietan hirian barrena zebilela gogoratzen du Irenek. Etxetik urruti. Bakar-bakarrik. Kaleetan zehar. Jendez, kolorez, mugimenduz, soinuaz, usainez inguratua. Inor ez zaren nonbait. Ezdeusa senti zaitezke. Baina, era berean, gutxitasun horretan ere, bere kasa moldatzeko gai izaten ari zela ikusteak askatasunaren bizipen berri bat eman zion Ireneri. Aurretik sekula izan ez zuena. Askatasunaren eta potentziaren zirrarak hartu zuen. Bakarrik zegoen, baina munduarekiko lotura modu berri bat sentitzen zuen. Norbere ahalmenetik egindako lotura, nolabait. Oraindik ere, gertatuak gertatu, hartaz gogoratzean, sentipen hura berriz bizitzeko gai da: konexioa, askatasuna eta ahalmena.

Klararekin hitzordua itxi du audio mezuen bidez: Clarence jatetxean elkarrekin afaltzeko geratu dira. Irrika sentitu du, eta urduritasun puntu bat.

–Klara, gogoratzen duzu iritsi zinen egunekoa?

Aurpegia aldatu zaio Klarari. Ezustean harrapatu du galderak. Ahoa pixka bat ireki du gogoratzen ari den bitartean, eta algara bat bota du ondoren konplizitatez.

–Zer inkontzienteak izan ginen... Pentsatze hutsa...

–Taxilariak helbidea erakutsi genionean ezetz esan zigun, helbide horretara ezetz. Autotik jaitsi zen, maletak maletategitik atera eta metroko sarrera seinalatu zigun... –Irenek, trafikoko agente baten erara, serio aurpegia jarri eta besoa luzatu du eskuinera, hatz erakusleaz ondoko mahaia seinalatuz, eta barre egin dute biek, ondoko mahaikoen harriduraz batere ohartu gabe, arreta beren elkarrizketan erabat bilduta–.

–Hura maletatzarra nirea! Ikasturte osorako behar nuen guztia neraman... Hura lana, metroan gora eta behera maletatzarrarekin!

–Baietz! Eta gu gurearekin aurrera –esan du Irenek irribarretsu, burua alde batera eta bestera mugituz, eta goiko hortzez ezpaina estutzen duela–. Ez zitzaigun nahikoa seinale iruditu taxilariaren ezezkoa.

Bi lagunak algara batean lehertu dira.

Helbide debekatua delinkuentzia tasa altuko auzo batean zegoen, nonbait. Klarak Oiartzungo jaietan egun batzuk lehenago bi gazte londrestar ezagutu zituen, Euskal Herria jairik jai zeharkatzen ari zirenak. Orduantxe, ikasturtea Londresen emateko ostatu bila zebilen Klara. Eta Serendipia zeritzan kontakizun batean irakurri berri zuenak halako lilura burbuila batean hartua zeukan egun haietan. Kontua da lagun berri londrestarrek Klarari esan ziotela haien etxera joateko, eta ezagunen artean erraz aurkituko ziotela ostatu merke bat edo are lan gutxiren truk doakoa ere bai agian. Eta bitartean han egon zitekeela arazorik gabe. Baita lagun batekin bazegoen ere, hala suertatuko balitz. Klarari beka txiki bat eman zioten Londreseko King's College-n erizaintza ikasteko eta gurasoak gogatzera ere lortu zuen. Beraz, matrikula egiteko lotzeke zeukan gai bakarra ostatua zen. Hala, serendipiaren fantasian, iltze goriari heldu zion: ostatuaren kontua lagun berri horiek esandakoaren menpe utzi zuen erabat eta dena

martxan jarri zuen. Erizaintzan matrikulatu, etxeko maleta handiena bete, bidaia-txartela erosi eta Irenekin geratu zen, hura oraindik Londresen zegoela baliatuz, egun batzuk elkarrekin emateko.

Neskak metro konbinaketaren bidez lagun londrestarrek emandako helbidera noizbait iritsi zirenean, bi festazaleekin bildu eta hauek etxe okupa batera eraman zituzten. Balkoiko atea zulo bat zen. Ez markorik, ez aterik, ez kristalik. Hutsa besterik ez. Eta, larrialdi-eskailerekin komunikatua zegoenez, nornahi igo eta jaisten zen handik. Lurrean eserita, moketa berde baten gainean, txirriak erretzen, hamabosten bat gazte zeuden espazio zabal batean. Noizbait etxeko egongela izana, segur aski. Hainbat paretatan zuloak zeuden, espazioa oraindik zabalagoa bihurtzeko saiakera zapuztu baten zantzuak apika. Eta hantxe eseri ziren neskak bi festazaleekin batera. Tartean bazen bizpahiru urteko ume bat ere, amarekin. Aita ere agian han egongo zen. Irenek ez du xehetasun hori gogoratzen. Gogoratzen du, hori bai, balkoiko zulotik begiratuta ilunabarrean zer ikusi zuen: kotxe bati gurpilak kendu zizkioten. Gurpilak eta ahal izan zuten guztia. Kotxea tailer mekanikoan balego bezala, baina piezak askatu eta abiada izugarrian autoaren ingurumaritik desagerrarazten zituzten. Eta berehala beste gazte bat agertzen zen ezerezetik bezala, beste pieza bat askatu eta eramateko. Bat formulako boxekin norgehiagokan, abiadari dagokionez. Halere, egun hartan erre zituen txirriekin-eta, Irenek beti zalantza izan du hura dena benetan ikusi zuen edo taxilariarekin gertatuak baldintzatuta amestu egin ote zuen. Oroitzapenen etengabeko berreraikuntza horretan gehitutako elementu berri bat ez ote den. Noizbait sortuko ote dute gure oroitzapenak asmakizunean ala behaketan oinarritutako elementuen ondorio diren zehatz bereizten lagunduko digun zerbait? Jatetxeko komunean galtzak igo eta kreamailera ixterakoan pentsamendu horiek ditu Irenek.

Mahaira bueltan, berriz eseri da; eta Klarak, hanburgesa zati bat sardexka eta labanaz mozten duen bitartean, orain arte hartaz hitz egin ez dutela ohartuta-edo, zuzenean galdetu dio:

–Eta Paul?

–Banoa, Klara.

–Joan, nora?

–Etxera. Euskal Herrira.

–Eta Paul? –ekin dio berriz Klarak, erantzunaren eta galderaren arteko egokitasunik eza agerian utziz. Eta mokadua ahoratu du.

–Kanpoan da, hilabete osorako. Ez daki... Utzi egingo dut.

Isilik geratu dira biak. Klarak mokadua poliki murtxikatzen du.

–Beti pentsatu dut tipo horrek ez zaituela merezi.

–Kontu asko jakitea falta zaizu, Klara –Ireneren begiak busti egin dira.

Biak elkarri zuzen begira geratu dira. Begiradak eusten dio egoera atezuari. Begiradak, eta Klararen murtxikatzeak. Erritmo geldian, tentsioa bigunduz. Bizitza ez da eteten.

Bi neskek moketa gainean norbere zakuetan lo egin ondoren, hurrengo goizean festazaleen etxe okupatik alde egin zuten. Ez nahi orduko. Deus ere jan gabe egin baitzituzten ia hogeita lau ordu. Etxe okupa hartan inork ez zien jatekorik eskaini, ez goserik zuten galdetu. Youth hostel batean hartu zuten ostatu hiru egunerako. Ireneren aurreko ostatura itzultzeko aukerarik ez zuten, maizter berria dagoeneko etorria baitzen gela hartara.

Klara kezkatuta zegoen, baina, lilura serendipikoa oraindik bizi, zerbait gertatuko zela seguru zegoen. Gutxien espero zutenean, gutxien espero zuten moduan. Esan liteke Irene Klara bera baino kezkatuagoa zegoela haren ostatuaren kontuagatik.

Iluntze hartan bertan kaleko kontzertu bat ikusten ari zirela, gazte atsegin bat gerturatu zitzairen, eta garagardo bana eskaini zien. Paul zen. Motxila isotermiko batean zeramatzan garagardoak. Fresko mantentzeko. Sekulako grazia egin zien horrek neskei. Klarak berehala ikusi zuen Ireneren eta Paulen artean kimika berezi bat sortzen ari zela, eta dantza egin nahi zuela-eta musika hobeto entzuteko aitzakiaz bikotearengandik urrundu egin zen.

Paulek eskultorea zela zioen eta horrek lilura antzeko zerbait sortu zion Ireneri. Artistek erakarri egiten zuten. Sortuz disfrutatzen dutenek. Errebelde tankera hartzen bazien, jakina. Sisteman txertatutako artistak ez zituen gogoko. Eta hark, hizkeragatik eta janzeragatik errebeldea zirudien.

Orduak pasatu zituzten kontu kontari. Barrez. Dantzan. Edaten. Irene ez zen sekula hain gustura egon mutil batekin. Dantzarekin eta barreekin batera musuren bat, ferekaren bat etorri zen. Musuak gero eta sutuagoak izaki, espazio intimoago baten beharra zuten. Etor zitekeen guztiarentzako gune egoki bat. Eta Paulek etxera gonbidatu zuen Irene. Neskak nahi zuen, baina askotan gertatzen zitzaion moduan, alderdi zalantzatia jabetu zitzaion. Kontzertuak amaitu zirenean, eta kaleak husten hasi, arre edo iso erabaki beharraren aurrean, Klarak animatu egin zuen Irene. Sekula ez baitzuen laguna hain xarmatua ikusi. Eta Klararengan konplize ona ikusita edota lagunaren presentziak Ireneren hainbat beldur uxatuko zituela pentsatuta-edo, hura ere gonbidatu zuen etxera Paulek. Eta azkenean hirurak joan ziren zizelkariaren etxera.

Hasieran gaua pasatzera. Gero, asteburu osora luzatu zen. Eta handik aurrera Irene etxerako itzulera atzeratzen hasi zen astez aste. Ordura arte Ingeles Filologia edo Gizarte Langile ikasketa egingo zuela argi zegoen, bitik bat, nahiz eta aukeratu ezinik egon. Baina matrikulatzeko epe guztiak joan zitzaizkion. Eta norabide jakinik gabeko egoera berri hartan gurasoak haserre zeuzkan, eta kezkatuta.

Ez zuten ulertzen alabaren portaera. Azkenean, Irene adoretu eta gurasoei adin nagusia zela gogorarazi ondoren, esan zien erabakia hartu zuela denbora baterako behintzat han bizitzen geratzeko.

Biak geratu ziren Paulen etxean bizitzen, Irene eta Klara. Irene Paulen ohean eta Klara, berriz, hasieran enbalatzeko materialez sortutako ohantze inprobisatu batean, lo zakuaz, eta gero, bionbo batzuekin osatu zuten hala-moduzko gela propioan, artistaren tailerrari zatitxo bat lapurtuta.

Etxea, berez, lantegi bat zen, pabiloi handi baten zati argitsuenean kokatua, eta bertan bizitzeko behar zituen gutxienekoekin egokitua. Logela bakarra zeukan, ohe handi batekin, eta ezer gutxi gehiago sartzen zen bertan. Sukalde txiki-txiki bat ere bazuen, eta komuna dutxarekin. Gainontzeko guztia espazio handi zabal bat zen, sabai oso altuak zituenez, bolumen itzelekoa. Askotariko materialak eta eskulturen zatiak zeuden alde guztietan, hainbat egitura modu desberdin osatuz, edota paretetatik edo sabaitik zintzilik.

Klararen sasigelatxoaz gain, lantegiaren katoi batean, sukaldearen aldamenean, jangela moduko bat atondu zuten, Paulek berak egindako diseinu mahai bat erdian jarrita, eta bigarren eskuko sofa bat ipini zuten ondoan. Etxe itxura hartzen ari zen; batez ere, landarez eta lorez apaintzen hasi zirenean.

Lehenengo hilabeteak zoragarriak izan ziren Irenerentzat. Eta hirurentzat, segur aski. Grina, sorkuntza, maitasuna, laguntasuna, ilusioa, berritasuna, zirrara... Paulek idaztera animatzen zuen Irene, eta itzulpen errazak egiten hasi zen haren zirkuluetarako. Dirutxo bat ateratzeko bederen.

Elkarbizitzan hilabete gutxi batzuk zeramatzatela, ordea, zerbait gertatu zen. Behin, Irene erosketak egitetik zetorrela, etxean sartu eta Paulen eskultura bat lurrean erabat triskatua aurkitu zuen. Ez zegoen Paulen arrastorik eta Klara bere gelatxoan negar krisi batean zegoen. Sekula ez zuen horrela ikusi Klara. Ez zuen lortu hari hitzik ateratzea,

eta bakarrik utzi behar izan zuen. Handik ordubetera-edo norbait etxetik atera zela iruditu zitzaion, eta Klara gelan ez zegoela egiaztatu zuen. Bi egunez egon zen Klara etxera agertu gabe eta Paulek ez Klarak ez zioten azalpenik eman nahi izan gertatu zenaz.

Bi egunen buruan, Paul eta Klara elkarrekin etorri ziren kaletik umoretsu ilunabar aldean, inoiz ezer gertatu izan ez balitz bezala. Eta denak hasieran bezala jarraitu zuen, ez bazen Irenek noizbehinka gertaera hura gogora ekartzen zuela, batez ere beste biek beraren aurrean jarrera alaiagoa bortxatzen zutela ikusten bazuen, edo modu horretako beste seinaleren batengatik.

Denbora luzez egon ziren horrela. Irene gustura zegoen bere bizitza berrian. Ingelesen artean egonda, ingeles hizkuntza filologia ikasten baino errazago barneratzen ari zen, ñabardura askoz gehiagorekin. Paulen jendarteak kultura maila handi samarra zuen, eta haien elkarrizketei jarraitzeko, hizkuntzaz gain erreferentzia kultural mordoa ikasi behar zuen Irenek eta mundu berri bat irekitzen ari zitzaiola sentitzen zuen. Zeharo gogo-pizgarria. Itzulpengintzako ikastaro batean matrikulatzea lortu zuen gainera. Gurasoak ere lasaitu ziren. Batez ere eguberriak pasatzera alaba etxera etorri eta hain ondo ikusi zutenean. *Bizitzaren ziabogak* izan zen aitaren esaera.

Paulek egingo zituzten bidaiez hitz egiten zion Ireneri. Amerika osoa goitik behera zeharkatu nahi zuen bizpahiru urte iraun zezakeen erakusketa bira handi batean. Eta prestaketek beste horrenbeste denbora eskatuko zuten. Irenek ikaragarri atsegin zuen planak egitea eta Pauli kontu horietan guztietan laguntzea... Maitale izateaz gain, Paulen laguntzaile pertsonala ere bihurtu zitzaion, eta erakusketen eta biren inguruko harremanetan eta kudeaketan paper handia egiten hasi zen Irene.

Urtebete elkarrekin zeramatarik, iraila inguruan, hainbat egitasmo zapuztu egin ziren. Egun gutxian, bata bestearen atzetik. Eta Paul frustrazioa kudeatu ezinik zebilen Argentinakoa ere bertan behera

geratu zenean. Paulek oso kutuna zuen egitasmo hori eta beraren iritziz, Irenek behar zen epean erantzun ez zuelako erori zen egitasmoa.

Urruma hori zebilkion barruan Pauli.

Egun haietan, behin, Klara eta hirurak bazkaltzen ari zirela, Paulek mahai-tresnak plater gainera bota eta haragia oso txarra zegoela esan zuen. Ezin zela irentsi. Ez zuela merezi horrenbeste diru gastatzea jaki goxoak ekartzen, gero hain gaizki prestatzeko. Ahoan zeukan zatia eskuarekin hartu, eta platerean utzi zuen, muzin desatsegina eginez.

Irene aritu zen sukaldean egun hartan. Paulek ez zuen sekula etxeko lanik egiten. Irene eta Klara etxean bizitzen hasi aurretik emakume bat zeukan etxeko lanetarako, orduka etortzen zitzaiona, eta hari kontratua eten zion bi neskak agertu bezain pronto.

Paulen hitz bortitzek eta moduek Irene mindu egin zuten, jakina, baina haren barne gatazkaren jakitun zen, eta baita frustrazioen kudeaketak katramilatuta zeukala ere. Eta neurri batean, horri denari egotzi zion portaera traketsa. Klara sutan jarri zen. Bere zaintzaz arduratzen ez den gizon bati, zaintza –hitzez onartuko ez badu ere, praktikan– emakumeen kontua dela behin eta berriz erakusten duen gizon bati, esan dakiokeen guztia esan zion, alegia, bere kontzientzia feministatik esan ziezaiokeen guztia; lagun mina irainduta ikusteak sortzen zion suminetik gainera, eta are irainen egilea lagunak maite zuen gizona izanik. Maitasunaren ordain makurra. Hitz bat bera ere ez zen esan gabe geratu. Paulek hasieran damu edo barkamen keinu bat izan bazuen ere, gero, artilleria osoarekin erantzun zion Klarari. Eta iskanbila horren ondoren, Klara fakultateko lagun baten etxera joan zen bizitzera. Ospitalean guardia batzuk egiten hasia zen, eta autonomia pitin bat ematen zion horrek. Paulen eta Klararen artekoak ez zuen handik aurrera konponbiderik izan.

Noizbehinka arratsalde pasa edo otorduren bat egitera etortzen jarraitu zuen Klarak etxera, baina bisiten maiztasuna berez jaisten joan

zen. Are, Paulen ateraldietan Klara isilik mantentzen saiatu arren, begiez pentsatzen ari zen guztia Ireneri transmititzen zionean, istant deseroso horietako bakoitzak Klara eta Irene elkarrengandik aldentzen baitzuten.

–Eskerrik asko errespetuagatik, Klara. Zuk bazenekien. Baina nik denbora behar nuen. Eta nire bidea egiten utzi zenidan. Erratuta nengoela jakinda ere.

–Ezin nuen besterik egin. Ez zenuen ikusi nahi –esan du Klarak, gogorregia izaten ari ote den beldurrez.

–Konbentzitzen saiatu izan bazina, orain ez ginatekeen elkarrekin egongo.

–Hala da. Pikutara bidaliko nindukezun –esan du Klarak irribarre konplize bat eginez.

Eta Klarak hitz egokiak zein ote diren pentsatu ondoren, galdetu dio:

–Zerk argitu dizu?

–Azken hilabeteak oso gogorrak izan dira. Osasun arazo bat izan dut. Aldakako gaitz bat. Nekrosi aseptikoa deitzen da. Ezer larririk ez, baina atsedean hartzera behartuta nengoen, sendaketa prozesuak hala eskatzen zuen. Gainera, edozer mugimenduk mina ematen zidan. Hasieran Paul oso maitekor egon zen. Baina berehala haren jarrera ulergaitza egin zitzaidan. Eta konturatu nintzen beraren kezka ni ondo jartzea zela, bai, baina egiten nuen lan guztia berriz egin nezan eta berari bizimodua errazteko. Bene-benetan ni bost axola nintzaiola ohartu nintzen. Gogorra izan zen. Eta okerreana, bera ez zela kontziente horretaz guztiaz. Naturaltasun osoz jokatzen zuen horrela. Normala balitz bezala. Zeharo erabilia sentitu nintzen.

–Denok erabiltzen dugu elkar, etengabe. Elkarren beharra dugu...

–Bai, jakina. Baina maitasuna beste zerbait dela uste dut nik. Maite duzun pertsonaren ondoan etxean sentitzen zara, eta azken aldian etxerik gabe sentitzen nintzen. Ohetik jaikitzeke gai izan nintzen bezain pronto nahiago nuen bakarrik egon, nahiz eta oinazeak izan, hura aldamenean eduki baino. Gaizki pasatu dut.

–Eta ez didazu deitu...

–Zer gertatzen zitzaidan ulertu behar nuen... Eta zuri arrazoia emateko adorea bildu... –Irribarre egin dio Irenek Klarari– Hasieran, nire kontua zela uste nuen. Depresio bat-edo... –Klarak buruarekin ezezko keinua egin du hori entzuten ari den bitartean, ezpainak estutuz eta begiak erdi itxiz–. Barne gatazka handia bizi izan dut – jarraitu du Irenek–. Paul maite nuen, maite dut. Dena ondo doanean zeharo zoriontsu egiten nau. Baina zerbait hautsi da nire barruan azken hilabeteotan harekiko. Konfiantza, esperantza... Hori, berarekin etxea eraikitzeke esperantza erabat suntsitu zait. Hasieran komunikazio arazo bat zela pentsatu nuen. Berarekin hitz eginez, ulertuko zuela eta aldatuko zela. Baina saiakera guztiak antzuak izan dira, egoera okertu baino ez zen egiten.

–Aldatzeko, norberaren borondatea beharrezkoa da.

–Hori da, eta Paulek ez du aldatu beharrik sentitzen. Batere ez.

–Eta beraz, ihes egingo duzu.

–Bai, ihes. Ez dut indarririk berarekin beste liskarrik edukitzeke. Erabakia ez du ondo hartuko, badakit. Eta ez dakit zer trikimailutan saiatuko ote den aukera ematen badiot. Horregatik, jokatzeko tarterik utziko ez dion mugimendu bat egin behar dut.

–Xake partidari zarela dirudi...

Txantxa egin dio Klarak.

–Erabakia hartua dut –Irenek eskua zabal sabelean bermatu eta biribil erdia marraztu du ahur irekiaz; ondoren, isiluneari eutsi dio, eta uneak garrantzia hartu du:– Bada beste zerbait.

Bi lagunek elkarri begiratu diote lehenik, zirrarez, eta ondoren Ireneren sabelera zuzendu dituzte begiak biek.

–Amabitxia izan nahi?

Irenek Klarari luzatu dio begirada berriz, konplizitatea bilatuz, eskaera samur horrekin batera. Eta Klarak irribarre argitsu batekin erantzun dio eta besoak zabaldu dizkio besarkatzeko.

Zazpi hilabete pasata, faltarik gabe Klarak Euskal Herrira bisita egingo duela zin egin dio Ireneri.

Asteartea. 11:05. Gatwickeko aireportua.

Amaren mezua irakurri du Irenek. Ordu bietarako Loiun izango ditu gurasoak. Telefonoa hegaldi moduan jarri du.

Hegazkinaren motorrak martxan jarri dira, eta irakurtzen ari zen liburua aurreko eserlekuaren atzealdeko sarexkan utzi du Irenek. Bi oinak ondo bermatu ditu lurrean, bizkarra eserlekuan.

Hegazkinak abiada bizia hartu du, eta lurretik goratzen hasi dela ikusi du Irenek leihatiletatik. Sabelean jarri ditu bi eskuak. Bi hatz lodiek eta bi hatz erakusleek elkar ukitzen dutela. Barruan daraman bizona berriari arreta jarri, zaindu eta maitatu. Etxe egokia behar du bizona berriarentzat.